

Atzo, irailak 30, Osalanen Kontseilu Nagusiak egindako bileraren ostean, ELA eta LAB sindikatuok honako alderdi hauek salatu nahi ditugu:

1. LEHENGO BIDE BERETIK, AURREKONTU TXIKIAGO ETA INFORMAZIO TXARRAGOAREKIN

Kontseiluko kideei emandako informazioa oso urria da, eta orain arte jaso izan duguna baino are eskasagoa.

- 2009a amaitu artean eta 2010ari begira gauzatuko diren politikak eta neurriak: ustezko zenbait jardun-neurri erabat generiko besterik jasotzen ez duen *power point* dokumentu bat aurkeztu zaigu. Ez helburu zenbakarririk, ez neurri horien premia arrazoitzen duen azalpenik ere. Neurriok, kasurik onenean, Osalanek azken urteetan egin duen bide beretik segitzea dakarte. Hortaz, laneko segurtasun eta osasunaren arloan egungo egoera sortu duten zioei heldu gabe jarraitzen dute.

- Ezbeharrei buruzko txostena: oso orokorrak diren datu estatistiko batzuk baino ez ditu eskaintzen. Ez da orain arte aztertutako ikuspegiei buruzko aipurik agertzen, hala nola kontratu mota, enpresa mota, langilearen adin, sexu eta abarri buruzkorik.

- 2010erako Aurrekontuaren zirriborroa: emandako informazioak irakurketa partzialak eragiten ditu, ez dagoelako argi zehazturik eta banakaturik.

ELA eta LAB sindikatuok salatu egiten dugu Eusko Jaurlaritzak %8,6 murriztu nahi duela, 2009koarekiko, datorren urtealdiko aurrekontua.

Finean, argi geratzen da Eusko Jaurlaritzak Laneko Segurtasunari eta Osasunari ematen dien garrantzi hutsala; horrez gain, informazio gutxi, txarra eta generikoa emanez, oztopatu egiten du benetako egoeraren gaineko balorazio oso, eraginkor eta egiazkoak egiteko aukera.

2. LAN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO FUNDAZIOARI BURUZKO EPAIA

A) AURREKARIAK

Lan Arriskuen Prebentziorako Fundazioak (estatu-mailakoak), urtero, baliabideak esleitzeko deialdia egiten du, batez ere ETEetan laneko segurtasun- eta osasun-baldintzak hobetzeari begira, informazioan, laguntza teknikoan, prestakuntzan eta arau-sustapenean oinarrituriko ekintzak antola daitezen.

Gaurarte, Osalanen Kontseilua dirua esleitzeko sistema horren aurka azaldu izan da, bere iritziz Fundazioak 31/1995 Legearen 5. Xedapen Gehigarrian araututakoaren kontra erabiltzen duelako diru-laguntzak emateko teknika hori, ekintzen kudeaketa eta kontrol osoa bere eginik.

Horregatik, aurreko Eusko Jaurlaritzak 2008ko deialdia ezeztatzea eskatzeko demanda jarri zuen. 2009ko martxoaren 23ko epaiak ezeztatu egiten du deialdia, epailearen iritziz, eta Kontseiluak defendatzen zuenez, dirua EAEn eskueran jarri behar delako.

Fundazioak epaiaren kontrako errekurtoa jarri du, eta oraingoz auzia ebazteke dago.

B) ELA – LAB SINDIKATUEN IKUSPUNTUA

ELA eta LAB sindikatuok hasieratik eutsi diogu irizpide berari, Eusko Jaurlaritzari honako hau exijituz:

- EAEn sortu eta Gizarte Segurantzako Lan Istripu eta Gaixotasun Profesionalek igorritako prebentzio-fondoen soberakinak oso-
osorik EAEn uztea, Kontseilu Nagusiak zuzenean esleitu ditzan.
- Fundazioari, EAEn ezarritako Mutuek azken urteetan igorritako prebentzio-fondoen soberakinei dagokien diruaren transferentzia galdatzea, Kontseilu Nagusiak zuzenean esleitu dezan.
- Adierazitako irizpideekin bat ez datorren edo Estatuan erabakitako eredua aplikatzeko baldintza betetzera behartzen duen fondorik ez onartzea.

3. OSALANEN ETA ERAIKUNTZAKO LAN FUNDAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

A) AURREKARIAK

Eraikuntzaren sektoreko azpikontratazioa arautzen duen 12/2006 legeak eta eraikuntza-sektorea arautzeko IV. Estatu Hitzarmenak xedatzen dutenez, 2012ko urtarriletik aurrera, sektoreko enpresek eta langileek frogatu egin beharko dute obra zehatz batean jardungo duen langile-taldeak prebentzio

arloko behar besteko prestakuntza baduela. Prestakuntza hori frogatzeko bidea Eraikuntzako Lanbide Txartela (ELT) eskuratzea da.

EAEn, 2004an, Eraikuntzako Ikasgela Iraunkorra jarri zen abian, Confebask-en eta Eusko Jaurilaritzaren arteko akordioaren ondorioz (gu kanpoan geratu ginen alde bateko akordioa izateagatik). Ikasgela Iraunkorraren helburua eraikuntza-sektoreko arriskuen prebentzio-maila prestakuntzaren bidez hobetzea eta, horri begira, enpresariek langileei prebentzioaren gaineko prestakuntza emateko duten eginbeharra bete dadin erraztea da.

Urtez urte, gero eta langile gutxiagori eman zaie prestakuntza Osalanen Ikasgela Iraunkor horretan. Ikasgela Iraunkorraren arazoak konpondu beharrean, Eraikuntzako Lan Fundazioak (estatu-mailako erakunde pribatuak) ematen duen prestakuntza lehenetsi da.

Ikasgela Iraunkorrean emandako ikastaroen kopurua eta ikastarootan parte hartu duten langileak:

Urtea	Ikastaro kp.	Langileak
2004	---	---
2005	86	1007
2006	44	492
2007	28	315
2008		

Txartela derrigorrean lortu beharrak arazoak sortu ditu. EAEn, ELTa lortzeko prozesua abian da jadanik. Bizkaian eta Araban, non sektoreko ordezkariaren gehiengoa UGTk eta CCOOk duten, txartela Eraikuntzako Lan Fundazioaren bidez lortzen da (UGT eta CCOO Fundazioko kide dira). Gipuzkoan, ordea, sektoreko gehiengo sindikala ELAk eta LABek dutelarik, Fundazioak ez du inolako ahalmenik, eta txartela lortzea arazo izan da langileentzat.

2009ko uztailaren 8an, Osalanek eta Eraikuntzako Lan Fundazioak eraikuntza sektorean edo horren kidekoetan diharduten langileentzat laneko arriskuen prebentziorako ekintza batzuk garatzeko lankidetza-hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmenean adostutako hasierako prestakuntzaren edukia eta ikuskapena Eraikuntzako Lan Fundazioaren esku egongo dira.

B) ELA – LAB SINDIKATUEN BALORAZIOA

- Lankidetza-hitzarmena prestatzeko prozesu osoan, ez da gizartearen parte-hartzerik izan, gizarte-eragileei bizkarra emanez burutu baita. 2009ko martxoan, aurtengo Kudeaketa Plana aurkeztu zenean, Prestakuntza atalean jasotako helburuetan “Eraikuntzako Lan Fundazioarekin, sektoreko langileei ELTaren lorpena errazteko

hitzarmena egitea” irakurri genuen arte ez genuen hitzarmenaren berri izan.

Hitzarmenaren gaineko informazioa eskatu genuenean, bilerak amaituta zeudela eta lortutako akordioa sinatzea baino ez zela geratzen esan zitzaigun, akordioaren edukiari buruzko beste xehetasunik eman gabe. Ordurako, hauteskunderen emaitza ezaguna zen, eta orduko gobernu-taldeak agintean jarraituko zuen ala ez zalantzan zegoen.

Ekainaren 15ean izan genuen hitzarmen horren berri bigarren aldiz, orduantxe helarazi baitzitzaigun Osalan eta Eraikuntzako Lan Fundazioa sinatzera zihoazen akordioaren zirriborroa. Osalanen aldetik, Zuzendari berriak sinatuko zuen akordioa. Eta sinatu egin zen, nahiz eta aurretik Osalanen Kontseilu Nagusiaren barruan eztabaidatzea eta onartzea eskatu bagenuen ere.

- Lankidetzeta-hitzarmenak edukirik eta ahalmenik gabe uzten du Osalanen Ikasgela Iraunkorra, eta Eraikuntzako Lan Fundazioaren Lanbide Txartelaren azpitik jartzen du guztiz. Prestakuntzaren edukia eta emateko modua Estatuan erabakiko dira.
- Eraikuntzako Lanbide Txartela estatuan zehaztutako irizpideen arabera lortuko da. Lankidetzeta-hitzarmena medio, Osalan Eraikuntzako Lan Fundazioaren estrategiaren menpe egongo da.

Logikaz, administrazioari dagozkion baina berak bete ezin ditzakeen eginkizun publikoetan –prebentzio, lanerako sarbide, prestakuntza eta abarrekin loturiko zereginetan-- laguntzen duten erakunde pribatuei eman beharko litzaizkieke diru-laguntzak. Baina, kasu honetan, kontrakoa gertatzen da: Osalanek ELFri eskualdatzen dio Eraikuntzako Lan Txartelaren ezarpena; bere prestakuntza moldatu egiten du, eta, gainera, ordaindu egiten du.

- Prestakuntzari eta prestakuntza emateko moduari buruzko irizpideak Azpikontratazioari buruzko Legeak (32/2006) eta eraikuntza-sektoreko estatu-mailako hitzarmenak xedatzen dituzte. Eusko Jaurlaritzak ez du aurkakorik esan (eskumenen inbasioa jazo arren), eta, lankidetzeta-hitzarmenaren bitartez, erakunde pribatu horren interesen azpian jarri da, bere zereginak haren esku erabat utzirik.
- Sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren ondorioz, Gipuzkoan ere Estatuko Hitzarmenean erabakitzen dena ezarriko da. Hau da, Osalanek eragotzi egiten du probintzia-mailako hitzarmen kolektiboen ahalmena, ezarriko den prestakuntza ez baitago jasota Gipuzkoako eraikuntza sektoreko hitzarmen kolektiboan.

- Txartelak eta bere garapenak ez dute ziurtatzen **prestakuntza egokia** emango denik, prestakuntzak sektoreko beharrei erantzun behar dielako. Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak berak –19. art.— xedatzen duenez, prestakuntzak ez luke **teorikoa** bakarrik izan beharko, orain ezarriko denaren modukoa, alegia, eta **praktika** ere hartu beharko luke.
- **Prestakuntza**, oso alderdi garrantzitsua bada ere, **ez da** aintzat hartu behar den **alderdi bakarra**. Lan-baldintzak (istripuak, gaixotasunak, azpikontratazioa, behin-behinekotasuna, lanaldi amaigabeak, lan-erritmo biziak...) errotik aldarazteko neurriak hartu ezean, sektoreko errealitatea ez da aldatuko. Are gehiago: emandako prestakuntza biktimak erruztatzeko koartada gisa ere erabil liteke, istripua gertatuz gero, enpresa askok zuritu nahi izango dutelako euren erantzukizuna, ezbeharra nozitu duen langileak beharrezko prestakuntza bazuela esanez. Ondorio maltzur hori, izan ere, dagoeneko ari da gertatzen enpresetan.

Ondorioz, lankidetzaren hitzarmen horrek, beste hainbat egitate bezala, agerian uzten du prebentzioaren eta prestakuntzaren gainetik bestelako interesei ematen zaiela lehentasuna.

Horregatik guztiatik, ELA eta LAB sindikatuok akordio horren kontrako erabateko arbuioa adierazi genuen Kontseilu Nagusiaren atzoko bileran, eta abenduan egingo den ohiko bilkura baino lehen akordioa indarrik gabe uztea eskatu genuen.